Bestelako Xedapenak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

104

AGINDUA, 2008ko abenduaren 10ekoa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena, Lanpostuen Balorazio Batzordea osatuko duten kideak izendatzen dituen 2006ko abenduaren 21eko Agindua aldatzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomiadunetako Lanpostuen Balorazio Batzordea sortzen du maiatzaren 16ko 79/2000 Dekretuak. Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Funtzio Publikoaren Sailburuordetzari atxikita egongo da batzorde hori, eta helburutzat honako hauek ditu: baloratzeko bidaltzen zaizkion lanpostuak aztertzea; eta lanpostu bakoitzari balioa egoztea, berari dagokion antolaera egituraren barruan.

Dekretu horretako 5. artikulua aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– LAB sindikatuaren izenean Lanpostuen Balorazio Batzordea osatuko duen kidea izendatzea, bokal ordezko izateko. Honako hau da:

Juanjo Ruiz de Mendoza Txabarri jauna (Lucas Andrés Martínez jaunaren ordez).

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko abenduaren 10a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

104

ORDEN de 10 de diciembre de 2008, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se modifica la Orden de 21 de diciembre de 2006 sobre nombramiento de miembros del Comité de Valoración de Puestos de Trabajo.

El Decreto 79/2000, de 16 de mayo, crea el Comité de Valoración de Puestos de Trabajo de la Administración General y Organismos Autónomos de la Comunidad Autónoma de Euskadi como órgano adscrito a la Viceconsejería de Función Pública del Departamento de Hacienda y Administración Pública, teniendo por objeto proceder al análisis de los puestos propuestos a valoración que se le remitan así como otorgar un valor a cada puesto dentro de la estructura organizativa en que se hallare integrado.

Teniendo presente el artículo 5 del mencionado Decreto,

RESUELVO:

Artículo único.– Nombrar al miembro que compondrá el Comité de Valoración de Puestos de Trabajo, en su calidad de vocal suplente, y en representación de la central sindical LAB, según se indica a continuación:

D. Juanjo Ruiz de Mendoza Txabarri (en sustitución de D. Lucas Andrés Martínez).

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden surtirá efectos a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de diciembre de 2008.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.